

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

790

75/2013 EBAZPENA, urtarrilaren 24koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena. Ebazpen honen bidez Arabako Unibertsitate Ospitaleko Erizaintzako zuzendari lanpostua betetzeko deialdi publikoa egiten da.

Arabako Unibertsitate Ospitaleko Erizaintzako lanpostua hutsik dagoenez, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du Zuzendaritza Nagusi honek. Hona hemen:

OINARRIAK

Lehenengoa.– Arabako Unibertsitate Ospitaleko Erizaintzako zuzendari lanpostua Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeei atxikitako langile finkoek (funtzionario, estatutupeko edo lan-kontratukoek) eska dezakete, bai eta Euskal autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzionarioek eta horko erakunde autonomoetako funtzionarioek ere. Honako eskakizun hauek bete behar dituzte:

- 1.– B1 taldeko diplomatu sanitarioaren titulua eduki beharko dute.
- 2.– Administrazio- eta kudeaketa-lanetan esperientzia izan beharko dute.

Bigarrena.– Interesdunek Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Erakunde Zentraleko Giza Baliabideetako Zuzendaritzara igorri beharko dituzte eskabideak, 10 egun baliaduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera. Horretaz gain, azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Prozedura Erkideari buruzkoa.

Hirugarrena.– Deialdi honetan parte hartu nahi duten izangaiek, eskabidearekin batera, honako hauek adierazten dituen curriculum vitae aurkeztu beharko dute:

- Titulu akademikoak.
- Orain arte betetako lanpostuak.
- Lanbidean eta kudeaketa sanitarioan daukaten eskarmentua.
- Ikasketak, ikastaroak, ponentziak, argitalpenak, hizkuntzak eta egoki iriztitako beste edozein merezimendu.

Eskabidearekin batera, eskatzen diren betekizunen eta aurkeztutako merezimenduen egiaztagiriak ere aurkeztu beharko dituzte. Halaber, argitalpenak, txostenak edota egokitutako beste edozein agiri ere aurkez dezakete.

Laugarrena.– Deialdi hau Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren ebazpen baten bidez ebatziko da. Ebazpena Euskal herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2013ko otsailaren 11, astelehena

Bosgarrena.— Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik..

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urtarrilaren 24a.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendari Nagusia,
JON ETXEBERRIA CRUZ.